

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 685/2024 Erabakia, azaroaren 26koa. Onestea Ana Belén Otero Miguélez Gizarte Zerbitzuen zuzendari kargutik kentzea, berak hala eskatuta

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 24ko 602/2019 Erabakiaren bidez, Ana Belén Otero Miguélez izendatu zen Gizarte Zerbitzuen zuzendari karguan.

Bat etorri Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8 eta 24 artikuluetan eta Foru kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak 9 eta 11 artikuluetan xedatutakoarekin, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio Foru Aldundiko goi karguak eta behin-behineko langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere kasuan kasuko saileko diputatuak hala eskatuta.

Ana Belén Otero Miguélezek aurkeztutako ukoa ikusi da; beraz Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Ana Belén Otero Miguélez Gizarte Zerbitzuen zuzendari kargutik kentzea, berak hala eskatuta, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek gaurtik aurrera, 2024ko azaroaren 26a, izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

GORKA URTARAN AGIRRE